

KANALAK

Txoko Experiencial proiektuak hainbat komunikazio kanal erabiliko ditu turistei eta bezeroei esperientzia gastronomikoa eskaintzeko. Komunikazio kanal nagusia webgune propioa izango da eta bertan esperientziaren azalpena argazkiak, prezioak eta erreserbak egiteko aukera eskainiko dira. Horrez gain, sare sozialak erabiliko dira batez ere Instagram eta Facebook ikusgarritasuna handitzeko eta bezeroen esperientziak partekatzeko. Turismo plataformetan ere agertuko da proiektua eta hotel eta turismo bulegoek esperientzia gomendatuko dute. Ahoz ahokoak ere garrantzi handia izango du bezeroen iritzien bidez.

Esperientzia gastronomikoa txoko fisikoan bertan egingo da eta bertatik abiatuta tokiko merkatuetara bisita gidatuak eskainiko dira hala nola La Bretxa edo San Martín Txokoan bertan produktu lokalen salmenta txikia egingo da eta horrez gain opari bonuak edo produktu packak posta bidez bidaltzeko aukera ere egongo da.

Salmentak batez ere webgunearen bidez egingo dira erreserba eta ordainketa zuzena ahalbidetuz. Horrez gain, hotel eta turismo agentzien bidez ere salduko da esperientzia komisio baten truke. Esperientzia pribatuak zuzenean kontratatzeko aukera egongo da baita opari bonu fisiko edo digitalak erostekoa ere.

Bezeroarekiko harremana hainbat fasetan garatzen da. Lehenengo fasean jendeak esperientzia ezagutzen du sare sozialen turismo plataformen eta hotel edo agentzien gomendioen bidez. Ondoren, informazioa bilatzen du webgunean argazkiak iritziak eta prezioak kontsultatuz. Hirugarrenik, erosketak egiten du online edo hotel edo agentziaren bidez. Laugarren fasean esperientzia txokoan bertan jasotzen du sukaldaritza tailerra, kultura eta dastaketa uztartuz. Azkenik, esperientzia amaitu ondoren, bezeroek beren iritzia ematen dute sare sozialetan jarraipena egiten da eta etorkizunean berriro etortzeko deskontuak edo eskaintza bereziak eskaintzen dira.